

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia
Academia Vasca de Policía y Emergencias



2023ko MEMORIA

2023ko abendua

AURKIBIDEA

ZIRIBOROA

AURKEZPENA

Hona hemen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren (PLEA-AVPE) 2023ko jardueren memoria; aurreko urteetan bezala, herritarrei gure erakundeak egindako jardueren laburpen gardena eskaintzeko helburua du.

Akademiaren helburua herritarren segurtasuna lortzeko zerbitzu publikoetan parte hartzen edo jarduten dutenentzako baldintzak eta bitartekoak sortzea da, hala, beharrezko prestakuntza profesionala eskuratu dezaten. Horretaz gain, akademiak gainerako batzuei ere ematen die trebakuntza, segurtasun publikoko zerbitzutik kanpokoak izan arren, interes profesionala dutenei edo zerbitzu publikoak garatzen dituztenei, alegia.

Hurrengo orrialdeetan PLEAk 2023an askotariko jarduketa arloetan egindako jarduerak xehatzen dira, baina datuen artean lausotuta gera daitezkeen zenbait mugarri azpimarratzeak pena merezi du:


- *2023an 100 prestakuntza ekintza egin dira eta 11.873 pertsonen parte hartu dute horietan, 9.460 gizonen eta 2.413 emakumeen (% 20,32), guztiak ere Segurtasun Publikoko Euskal Sistemako langileak.*
- *Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak 131 hautaketa prozesu egin ditu 61 udaletxetan Udaltzaingoko askotariko laneratze eta igoera kategorietan.*
- *5.315 pertsonen parte hartu dute EAEko Polizia Kidegoen hautaketa prozesuren batean (hainbat kategorietarako laneratzeak eta igoerak).*
- *Frantziako Tourra EAetik igaro zelako EAEko Polizia Kidegoetan agente gisa laneratzeko ikastaroko ikasle guztiek egin zuten diziplina arteko praktika (3. deialdi bateratua).*
- *Berdintasun Unitatea finkatu da, eta Berdin-Berdinak berdintasunerako lantalde baten bitartez martxan jarri eta diseinatu zen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana. Planaren helburu nagusietako bat da akademiako langile guztiei zuzendutako prestakuntza ibilbidea diseinatu eta ezartzea.*

Ondoren, zehatz mehatz azalduko da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak 2023an egindako jarduera guztia. Jarduketa horien guztien azken xedea da Segurtasun Publikoko Euskal Sistemari prestatutako profesionalak egotea (trebeak, abila eta gaituak), hautatuak (egokiak) eta motibatuak; gizartearen errealitate eta behar berriei egokitutako pertsonak, beren jardueraren bitartez gai direnak gizarte bizikidetzari eta herritarren ongizateari ekarpenak egiteko. Azkenik, nahitaez aipatu behar da hau ez zela posible izango egunez egun zerbitzu publikoko partekatutako balioetan oinarrituz lan egiten duten 180 langileen eta laguntzen duten adituen dedikazio eta profesionaltasunik gabe.

Eskerrik asko guzti-guztioi.

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ZUZENDARITZA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren organigrama



Gobernu organoak

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren gobernu organoak Artezkaritza Kontseilua eta akademiaren Zuzendaritza Nagusia dira.

Artezkaritza Kontseilua

Artezkaritza Kontseiluaren buruak lehen lehendakariordea eta segurtasun sailburua dira, eta hainbat eremutako 20 ordezkari osatzen dute. Hurrengo taulan agertzen da 2023ko osuera.

PRESIDENTEA	Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
PRESIDENTEORDEA	Rodrigo Gartzia Azurmendi
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren ordezkaria	Andrés Zearreta Otazua
Segurtasun Sailaren ordezkaria	Miren Goitia Gabiola
Segurtasun Sailaren ordezkaria	Izaskun Urien Azpitarte

Segurtasun Sailaren ordezkaria	Victoria J. Landa Moñux
Segurtasun Sailaren ordezkaria	Ricardo Ituarte Azpiazu
Segurtasun Sailaren ordezkaria	Asier Erkoreka
Aurrekontu, Ogasun eta Finantzako sail eskudunaren ordezkaria	M ^a Luz Ruiz Melendo
Arabako Lurralde Historikoko ordezkaria	Alberto Amenabar
Bizkaiko Lurralde Historikoko ordezkaria	Ager Izagirre
Gipuzkoako Lurralde Historikoko ordezkaria	Irene Berasaluze
Hiru hiriburuetakoko udaletako ordezkaria (txandaka, bat aldi bakoitzean)	Iñaki Gurtubai Martín Ibabe Amaia Arregi
EAEko udalerrietako ordezkaria (EUDEL)	Maialen Gurrutxaga
EAEko udalerrietako ordezkaria (EUDEL)	Joseba Ilari Etxeberria Calvo
Ertzaintza ordezkari-tza handiena duten erakunde sindikalen ordezkaria	David Calleja Gauna
Ertzaintza ordezkari-tza handiena duten erakunde sindikalen ordezkaria	Roberto Palma Gorostiza

EAEko toki administrazioan ordezkaritza handiena duen erakunde sindikalaren ordezkaria	David Fdez. de Gamarra Egurrola
Idazkaritza	Malentxo Arruabarrena Julián

Artezkaritza Kontseiluaren bilera

Artezkaritza Kontseiluak bilera bakarra egin zuen, **2023ko abenduaren 18an**, honako gai zerrendarekin:

1. Aurreko bileraren akta berrestea eta sinatzea.
2. 2023ko memoriaren zirriborroa.
3. 2024rako aurrekontuaren aurreproiektua.
4. 2024ko jarduera plana.
5. Galderak eta eskaerak.

Erabaki hauek hartu zituzten:

- 1.- Artezkaritza Kontseiluak aho batez berretsi eta sinatu zuen aurreko bileraren akta (2022-12-16)
- 2.- Artezkaritza Kontseiluak erabaki zuen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren 2023ko memoria onestea.
- 3.- Artezkaritza Kontseiluak 2024rako aurrekontuen aurreproiektua onetsi zuen.
- 4.- Artezkaritza Kontseiluak erabaki zuen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren 2024ko jardueren plana onestea.

Aurrekontuak

2023ko ekitaldirako, eta 2023ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorrak onesten dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legean ezarritakoarekin bat etorritz (2022ko abenduaren 30ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 249. zenbakian argitaratu zena), aurrekontua modu honetan egituratuta dago:

KAPITULUA	HASIERAKO AURREKONTUA	EGUNERATUTAKO AURREKONTUA
1.- LANGILEEN GASTUAK	13.710.597 €	13.055.597 €
2.- FUNTZIONAMENDU GASTUAK	6.540.403 €	7.005.403 €
3.- FINANTZA GASTUAK	1.000 €	1.000 €
4.- TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK GASTU ARRUNTAK	890.000 €	980.000 €
6.- INBERTSIOAK	1.000.000 €	1.100.000 €
8.- FINANTZA AKTIBOAK GEHITZEA	10.000 €	10.000 €
GUZTIRA	22.152.000 €	22.152.000 €

Aurrekontu betearazpena % 95ekoa izan da.

Langileak

Gaur egun 180 langile daude Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako 180 langileen artean 118 lan kontratudun langileak dira, langile 1 Administrazio Orokorreko funtzionarioa da, 56 Ertzaintzako funtzionarioak dira zerbitzu eginkizunean, 3 zerbitzu medikokoak dira, eta 2 goi kargudunak.

Behin-behinean lanak pilotzeagatiko kontratuen bidez, irakaskuntza eta hautapen funtzioengatiko zerbitzu eginkizunen, behin-behineko bajengatiko ordezkapenen bidez...Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren benetako jarduerari erantzuteko behararengatik askotariko hautapen prozesuak egin dira.

Akademiaren jardura

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

Berdintasunaren Administrazio Unitatea

PLEAren Berdintasunaren Administrazio Unitateak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko politikak eta jarduketak sustatzen ditu baldintza horietan benetako berdintasun eraginkorra lortzeko helburuarekin eta, horretarako, metodologia nagusi gisa estrategia duala erabiltzen du: berdintasunaren arloan jarduketa zehatzak eta espezifikoak ezartzea berdintasuna zeharka txertatzen duten jarduketekin konbinatuta, hau da, erakundeko pertsona guztiek genero ikuspegia sartzea beren lan prozeduretan.

2023an egin diren jarduketa nagusiak honako hauek izan dira:

II. Berdintasun Plan estrategikoa onestea eta martxan jartzea. Bertan definitzen dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko jarduketako lerroak. Planaren helburua androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatzen ez dituzten balio berriak eraiki eta finkatzea da, eta ildo nagusia lan prozedura guztietan genero ikuspegia txertatzea, emakumeen ahalduntzea, berdintasunezko maskulinitateekin lan egitea eta indarkeria matxistaren aurkako borroka da.

Prestakuntza ibilbidea diseinatu eta martxan jartzea, hau da, denboran antolatu eta sekuentziazatutako eta ezagutza arloen eta mailaren arabera multzokatutako ikaskuntza ekintzen multzoa da. Ekintza horiek neurgarriak eta ebaluagarriak dira, eta betetzen direnean, erakundean lanpostu edo eginkizun bati lotutako ardurak gauzatzeko beharrezkoak diren ezagutza eta gaitasun mailak eta motak eskuratzen dira. Prestakuntza ibilbidea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 18. artikulua betez diseinatu da. Prestakuntza oinarritzakoa, mailakatua, iraunkorra eta nahitaezkoa proposatzen da, hiru prestakuntza ardatz hauekin:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eta langile guztientzako lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzearen arloko oinarritzako prestakuntza.
2. Sektore prestakuntza, arlo eta lanpostu bakoitzerako espezifikoa.
3. Kudeaketa mailen araberrako prestakuntza, bereziki, burutza eta zuzendaritzari zuzendutakoa.

2023an akademiako langile guztiei zuzendutako 2 prestakuntza bloke hauek gauzatu ditugu:

1. 4 orduko prestakuntza blokea. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako oinarritzako prestakuntza.
2. 4 orduko prestakuntza blokea. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko oinarritzako prestakuntza.

Beste alde batetik, lan lerro gisa ezarri da protokolo espezifiko bat diseinatzea sexu jazarpen eta sexua oinarri duten jazarpen egoerei erantzuteko akademiaren berezitasun eta ezaugarri propioak kontuan hartuta (ez dira administrazio publikoko bestelako testuinguruekin konparagarriak).

Lehenengo prebentzio neurri gisa, eta protokoloa diseinatu baino lehenagoko epe ertaineko helburu gisa, **PLEAk Aholkularitza Konfidentzial bat sortuko** duela erabaki du eta *langileentzako leku segurua izango da, kontsultak egiteko, informazioa jasotzeko eta informatzeko, baldin eta kasuren baten berri badute edo biktimak badira.*

Aholkularitza Konfidentziala Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian lan egiten duten, zerbitzuak ematen dituzten edo prestakuntza ikastaroak egiten ari diren guztiei zuzenduta dago, eta aholkularitza horretan indarkeria eta jazarpen arloko kexak, informazioak eta iradokizunak jasotzen dira. Aholkularitzak une oro bermatzen du esku hartzen duten guztien intimitatea eta duintasuna babestuko direla eta konfidentzialak izango direla, eta berariaz debekatuta daude prozeduran parte hartzen dutenen aurkako errepresaliak.

Era berean, **lantalde bat sortu da sexua oinarri duten jazarpen kasuetan eta sexu jazarpenekoetan jarduteko protokoloa diseinatzeko**, eta lantaldean gai horren inguruko arlo erreferenteen ordezkariak daude. Taldeko lanaren abiapuntu gisa prestakuntza espezifiko bat gauzatu dugu. Hasteko, akademian nagusiki sexua oinarri duen jazarpena eta jazarpen sexuala prebenitzeko jarduketak diseinatuko dira, eta langile guztiak sentsibilizatu eta konprometituko dira emakumeen eta gizonen arteko errespetuarekin eta berdintasunarekin lotutako balioetan.

Beste alde batetik, **sentsibilizazio neurriak** ezarri dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako askotariko gaietan eta martxoaren 8an eta azaroaren 25ean emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazio neurriak ezarri ziren baita ere. Lansaiokoak gauzatu dira berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko ekintza positiboko neurriak ezartzearen behararen inguruan sentsibilizatzeko.

PLEAko dokumentazio zentroa (CDAVPE, siglak gaztelaniaz)

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Dokumentazio Zentroaren (CDAVPE) helburuak dira ikaskuntzan, irakaskuntzan eta ikerketan laguntzea, informazio baliabideak eskuratu eta hedatzea erraztea eta ezagutza sortzeko prozesuetan lan egitea: PLEAko langileei, ikasleei eta EAEko Segurtasun Publikoko Sistemaren langileei zuzendutako laguntza da.

Horretarako, 2023an CDAVPEk ondorengo jarduera erregistratu du.

AGIRIEN FUNTSA

CDAVPEk 8860 erregistro ditu guztira, erabiltzaileentzako aldizkako 50 argitalpenerako harpidetza eta bestelako aldizkako 784 argitalpen elektronikoen alertak (doakoak, Internet sarearekin Google Akademikoarekin, DIALNETekin eta abarrekin hautatutakoak) kudeatzen ditu, eta Eusko Jaurlaritzaren BIBLIOTEKAK SAREarekin batera askotariko datu baseen (Aranzadi, Wolters Kluwer ...) sarbidea kudeatzen du.

MAILEGU ZERBITZUA

Erabiltzaileei ere maileguak egiten zaizkien arren, orokorrean, maileguak atalei egiten zaizkie (horietan lan egiten dute hainbat profesionalak). Modu horretan, ataletako irakasleek nahi dutenean erabil ditzakete CDAVPEri aurretiaz eskatutako monografia propioak.

Gainera, monografia horien erabilera eta kontsulta errazteko, CDAVPEko maileguak erdi iraunkorrak dira: askotariko ataletan guztira 1480 aleren mailegu aktiboak daude.

Dokumentazio Zentroko erabiltzaileek zerbitzu hauek dituzte:

- Mailegu Zerbitzua (liburutegien artekoa barne).
- Agiriak Eskuratzeko Zerbitzua (SOD, gaztelaniaz): artikulua, erabaki judizialak, arauak, etab.
- Informazioaren Hedapen Selektiboaren Zerbitzua (DSI, gaztelaniaz):
2022an CDAVPEk erabiltzaileen artean askotariko laburpenen buletinak eta berrien alertak sortu eta banatu ditu.

CDAVPEren katalogoa BIBLIOTEKAK SAREAREN (Eusko Jaurlaritzaren Liburutegien Sarea) eta EAEko Irakurketa Publikoko Sarearen barne dago.

Araubide Juridikoaren, Ekonomia Kudeaketaren eta Gai Orokorren Alorra

Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren menpe eta hark gainbegiratuta, Araubide Juridikoaren, Ekonomia Kudeaketaren eta Gai Orokorren Alorrari dagokio lehenengoaren eskumeneko jarduketa eremuak kudeatzea eta, bereziki, honako eginkizunak betetzea:

- Administrazio prozedurak izapidetzea.
- Erakunde autonomoaren aholkularitza juridikoa.
- Prozedura jurisdikzionalen eta horien ebazpenen jarraipena eta kontrola.
- Langileen ohiko kudeaketa.
- Barneko zerbitzuak eta lan sistemak antolatzea eta, bereziki, erregistroa eta artxibategi nagusia kudeatzea.

- Bertako langileen eta Ertzaintzako funtzionarioen euskalduntzea eta hizkuntza normalizazioa kudeatzea.
- Akademiaren kudeaketa ekonomikoa.
- Ondare eta kontratazio espedienteak kudeatzea.
- Aurreproiektu eta proiektu ekonomikoen aurrekontu eta ekonomia eragina aztertu eta gainbegiratzea, baita ere hitzarmenak eta eduki ekonomikoa duten gainerako jarduerak.
- Erakunde autonomoaren ondarea mantentzea eta kontserbatzea.
- Bitartekoen hornidura kudeatzea eta azpiegiturak eman eta kudeatzea.
- Akademiaren informatika sistemak eta aplikazioak kudeatu eta mantentzea.

Horretarako, Araubide Juridikoaren, Ekonomia Kudeaketaren eta Gai Orokorren Alorra hiru arlo hauetan banatuta dago:

- a) Langileen eta Araubide Juridikoaren Arloa.
- b) Kontratazio eta Aurrekontuen Arloa.
- c) Antolamenduaren eta Sistemen Arloa.

A). - LANGILEEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ARLOA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Langileen eta Araubide Juridikoaren Arloari dagokio arlo horretako giza baliabideen kudeaketa eta administrazioko jarduera guztiak egitea eta EAeko Polizia Kidegoen oinarrizko eskalaren agente gisa laneratu nahi dutenen administrazio kudeaketak egitea. Horretarako, kolektibo bietako kotizazioko alden eta baje Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko mugimenduak egiten ditu.

Halaber, lan eta administrazio jarduketan legezotasuna bermatzeko, akademiaren organo guztiei zuzendutako aholkularitza lan handia garatzen du eta akademiako erregistroko sistemaren eta agiritegi orokorraren antolamendu eginkizunak gauzatzen ditu.

2023an hautaketa prozesuak geroz eta gehiago judizializatu direnez, administrazio eta lan prozedurak gehitu dira eta arloko langileek lan karga handiagoa izan dute. Hala, prozedura judizialak jarraitu eta kontrolatu dituzte eta administrazio espedientearen dokumentazioa eta bestelako kanpoko agenteek eskatutako txosten juridikoak bidali dituzte, eta aurkaratutako erabakiak hartu izana egiaztatu eta arrazoitzeko jarduerak egin dituzte.

Halaber, hainbat gorabehera gertatu dira aldi baterako lan kontratudun langileen enplegua finkatzeko politikak gauzatzeagatik eta igoera, espezializazio eta abarretako askotariko hautaketa prozesuen deialdiak egin direlako.

Zalantzarik gabe baieztatu dezakegu ekitaldi hau arloaren emankorrenetakoa izan dela, zailtasun handiko eginkizunak bere gain hartu izan behar baititu.

Ondorio hori indartzen duten datuak hauek dira:

ERREGISTROA, INFORMAZIOA ETA IZAPIDETZE ELEKTRONIKOA

- 1.- Telefono bidezko arreta: Akademiako telefonogunea eta hautapen prozesuak.
- 2.- Erregistroa: Sarrerak: 2.214
Irteerak: 804
- 3.- Argitalpenak: Gurenet: 155
Arkauteko webgunea: 51
EHAA: 5
Hautaketa prozesuen aplikazioa: 51
- 4.- Administrazio izapidetze elektronikoa:

Tramitagunea: 245

Avantius zitazio judizialak: 160

5.- Akademia Kudeaketako eskola hutsegiteak: 1.700 erregistro

6.- Eskarien kudeaketa laneratzeko hautaketa prozesuetan: 5.814.

7.- Dokumentazioa jasotzea hautaketa prozesuetan: 1.236

8.- Istripuen mutuari izapidetutako laguntza parteak: 61

9.- Bajarik gabeko istripuen zerrenda: 54

LAN KONTRATUDUN LANGILEEN ORDUTEGIAK KONTROLATZEA

Langileen presentzia eta absentismo eskaerak izapidetzea eta epeen barnean eskatutako lanaldi aldaketak esleitutako ordutegi plantillaren aldaketarekin: 7 aldaketa 2023-11-30era arte. Bi ordutegi arau berri sortzea adingabeak zaintzeagatik familia kontziliazioko lanaldi murrizketaren kasuetan. 2 ordutegi arau berri. Egutegiak eta abar erabakitzea.

SAP eta GPEIZU ESPEDIENTEAK. NOMINA. LAN KONTRATAZIOAK.

1.- Auzitegiei ordaintzea	11
2.- Lankidetzak ordaintzea	239
3.- Aurreratutako diruak izapidetzea	8
4.- Norbere eginbeharretarako baimenen eskaerak	9
5.- Behin betiko bajak	17
6.- Edoskitzaroak kalkulatzea	3
7.- Bateragarritasunak	5
8.- Lanpostuak betetzea	9

9.- Aldi baterako langileak kontratatzea	2
10.- Behin-behineko aldi baterako langileak kontratatzea	4
11.- Errelebo kontratua	1
12.- Enbargoak	2
13.- Eszedentziak	1
14.- Izendapen libreko lanpostua behin betiko betetzea	1
15.- Gizarte Funtsaren inklusioa	53
16.- Ezintasunak	2
17.- Erretiroak	3
18.- Kostu gordinaren zerrendak	11
19.- Datu pertsonalak aldatzea	34
20.- Aitatasunak/amatasunak kalkulatzeko eta ziurtatzea	15
21.- Ekonomia eta kontratazio memoriak idaztea	5
22.- Legezko zaintzagatiko lanaldiak murriztea	3
23.- Lanaldi murrizketak	2
24.- Berrito laneratzeak	1
25.- GIP espedienteak	147
26.- Kontratazioa Lanbideren lan eskaintzak	7
27.- APFrako kudeaketa, izapidetzea, kalkulua eta bilerak	43

ARAUBIDE JURIDIKOA

A) HAUTAKETA PROZESUAK

- 1.- Hautaketa prozesuen Idazkaritza Teknikoa: 15
- 2.- Hautaketa prozesuen Mediku Auzitegiaren Idazkaritza: 4 (1.800 zitazio)
- 3.- 2018ko lehen urteko agenteen igoeraren epaia betetzea
- 4.- Udaltzaingoaren prozedurak: 9
- 5.- Bitarteko udaltzainak hautatzeko prozesua: 2

B) IKASTAROEN ETA IKASKETA PLANEN EBAZPENAK

- 1.- Ikasketa planak onestea: 94
- 2.- Ikastaroak hastea: 106
- 3.- Argitalpen eginbideak: 200

C) ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEEN EBAZPENAK

1. 2023an hasitako administrazio espedienteak: 760
2. Urtean ebatzitako administrazio espedienteak: 857
3. Laneko espediente judizialak: 5

D) PROZEDURA JUDIZIALAK

- 1.- Frogak eta txostenak auzitegiei: 109
- 2.- Deiak eta espedienteak eta frogak bidaltzea: 309
- 3.- Tasa judizialak erreklamatzeko: 13

E) BESTELAKO JARDUKETAK

Erakunde autonomoari eragiten dioten xedapen orokorrak sortzen parte hartu da. Txosten juridikoak, oharrak eta aholkularitza egin eta eman zaizkie akademiaren askotariko arloei eta erakundearen intereseko bestelako lanak egin dira.

ITZULPENAK ETA HIZKUNTZA NORMALIZAZIOA

- 1.- Itzulpenak: 293 agiri
- 2.- Hizkuntza normalizazioa:

- 2.1 IVA Pek deitutako euskara ikastaroen txostenak eta eskarien kudeaketa: 15
- 2.2 Hizkuntza profilak egiaztatzeko eskariak kudeatzea: 22
- 2.3 Euskararen Erabilpenaren Normalizazio Plana PLEAn
- 2.4. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ospatzea

B). - KONTRATAZIO ETA AURREKONTUEN ARLOA

Kontratazio eta Aurrekontuen Arloak erakunde autonomoaren jarduerarako beharrezkoak diren baliabide materialak eta zerbitzuak eta ekonomia eta finantza jardura planifikatzen, kudeatzen, antolatzen eta berrikusten du eta esleituta dituen helburuak lortzen laguntzeaz gain, arloari atxikitako zerbitzuak gainbegiratzen ditu.

Kontratazio eta Aurrekontuen Arloan 2023rako akademiaren funtzionamendu zuzenari lotutako espedienteak eta kontratuak izapidetu dira.

1. Adjudikatutako espediente eta kontratu berriak:

- Ostalaritzako elikagaien hornidura; propanoaren hornidura; euskararen erabilera planaren kudeaketari laguntza teknikoa emateko zerbitzua; Ertzaintzaren ontziak gidatzeko gaikuntza ikastaroa; Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuaren (PSSZ) entrenamendu dorrearen obra; EAEko biktimizazioari eta Segurtasun Publikoarekiko pertzepzioari buruzko 2023ko azterlana ; edariak eta elikagaiak saltzeko makina automatikoak instalatzea eta kudeatzea: Espedientea. Biomasa 2 galdara eta osagaiak hornitzea. Arrain freskoa hornitzeko esparru erabakitik eratorritako kontratuak.

2. Izapidetze aurreratuko 2023ko espedienteak

- Alokairu erregimenean (*renting*) eta erosteko aukerarik gabe fotokopiagailuak hornitzea, hondakinen tratamendurako zerbitzua; tiro eremurako material suntsikorren hornidura; papera eta mahaiko inprimagailuen kontsumigarri informatikoak hornitzea (toner kartutxoa, fusorea, fotoeroalea, etab.).

3. Kudeaketa laneko espediente handiak

- Jasangarritasun Planaren Esparruan, bi galdara gelatarako (igerilekua eta budokan) biomasa termikoki egokitzeko obra proiektua. Suhiltzaileen entrenamendu dorrea eraikitze proiektua. (2. fasea): Gas naturalaren hoditeria eta lurperatze obrak sarreratik galdaren gela nagusiraino.

4. Kontratu luzapenak: (2023)

- Bide prestakuntzako irakasle ikastaroaren aurrez aurreko fasea emateko zerbitzua. ARKAMPUS plataformaren laguntza, mantentze eta laguntza teknikoko zerbitzua. Mantentze informatikoko Zerbitzua. Kontserbazio, konponketa eta mantentze lanen zerbitzua; azpiegiturak eta altzariak alokatzeko eta muntatzeko zerbitzua (lekualdatzea, muntatzea eta desmuntatzea barne), mota guztietako ekitaldi eta egintzetarako. Ertzaintzaren ontziak gidatzeko gaikuntza ikastaroa (2024).

5. Beste espediente batzuk:

4 hitzarmen sinatu dira bestelako entitate, enpresa eta erakundeekin esleitutako helburu eta xedeak hobeto betetzeko: SuEskola Gipuzkoa Fundazioarekin baterako prestakuntza ekintzak egiteko. HABErekin, Hizkuntza Trebakuntzako Ikastaroen kudeaketa materialaren aginduari buruz. MugiArkaute elkartearekin Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako sarbidea errazteko eta Gurutze Gorriarekin, larrialdien eta babes zibilaren arloan.

MANTENTZE LANEN ATALA

Urteko mantentze lanen, horniduren eta askotariko zerbitzuen 180 kontratu txiki kudeatu dira.

1.- Obra handiak eta proiektu garrantzitsuak:

- Gas naturaleko lurpeko hargune berria, lehen fasean 40.000 litroko C gasoliozko andel bat eta 8.500 litroko propanozko beste bat kentzeko. Gas naturaleko galdara gela berrian eta sukalde zerbitzuan obrak egiteko dokumentazioa aurkeztea, jarraipena egitea eta Obra Zuzendaritzarekin bilerak egitea. Proiektu teknikoa egitea eta EEerekin dirulaguntza kudeatzea biomasako District Heating instalazio baterako bi galdara geletarako. Maniobra dorrearen eraikuntza obra egitea (PSISZ), Plan Berezia eta Hirigintzako Plan Nagusia betez. Altxaera topografikoa barne. Zerbitzuak sartzera eta ezartzera GWDOMO mantentze sare berrian, Gateway telefonogune nagusiaren bidez ekipoak eta instalazioak monitorizatzeko Modbus komunikazio protokoloaren bitartez. PLEAn ezartzera Jasangarritasun Batzordeak eta Talde Teknikoak hartutako neurriak. PLEaren Jasangarritasun Plana jarraitzea (energia efizientzia, mugikortasuna eta ingurumen kudeaketa).

2.- Obra txikiak eta erreformak instalazioak hobetzeko

- 3 tiro eremuren baheketak eta hondakinen kudeaketa. PLEaren hainbat eremutan ur ihesak eta itoginak konpontzea. J moduluaren terraza iragazgaiztea. Euri uren hodi berria eta zorrotena egitea eta 1. tiro eremuan daudenak indartzea. PLEaren hainbat lekutan errepede markak margotzea. Bizitza lerro guztien prebentziozko mantentze lanak eta asfaltozko oihalaren mantentze lanak egitea hainbat estalkitan. Dilatazio junturak konpontzea eta teila hautsiak ordeztzea hainbat eraikinetan. Ihesak detektatu eta konpontzea. Tiro eremuetan hormatxoak, zutabeak eta parabalak egokitzea. Binilozko lurzoruaren ordeztzea baldosa jartzea A eta B moduluetakorridorreetan. Barnetegiko leihotetan eguzki biniloak jartzea hegorantz begira. Zorrotena konpontzea gimnasioko fatxadan ekialdera begira. Elektrolindegia instalatzea, 6 karga punturekin eraikin nagusiko aparkalekuan. Areto Nagusian eskailera mekanikoa jartzea eta fabrikatzea suhiltzaileen oinarrizko ikastaroko hautapeneko proba fisikoetarako. Klimatizazio hartunea 4 hodietara zabaltzea D moduluan. 2. zenbakiko frontoia osorik egokitzeko obra egitea, eta Topagune berria bihurtzea. Ebaluazio bulegoko open office batean bulegoak eta korridorea bateratzeko obra. Instalazio termikoen eta gasolio eta propano andelen KEBen ikuskapenak. Elektrizitate hartunea eta informaziorako kanpoko pantaila instalatzea Harrera eraikinean. Eguzki instalazio fotovoltaikoaren handitze obraren 3. fasea. Binilo espezifikoen errotulazioa etxebizitzan 2. solairuko hormetan, begi ikuskapenetarako. Galdara gela nagusiko azpizentralen kontrola handitzeko obra. Harrera eraikineko zuzena asfaltatzea. Bizitza lineak instalatzea eta IP Minidomo kamera berria instalatzea eraikin nagusiko lehen solairuan. Defentsa tekniken eraikineko tatamia egokitzea.

3.- Instalazio elektrikoak eta kontrol domotikoa

- Akademiako domotika sistema mantentzea. Eraldaketa Zentroaren mantentzea, tentsio baxuko gela eta talde elektrogenoa. Egunero berrikustea argiteria eta klimatizazio sistema. Energia elektrikoaren kontsumoekin lotutako mantentze lanak eta etengabeko hobekuntza. Barruko eta kanpoko argien balio bizitzaren arabera ordezkapena egitea LED sistemara, PLEAko hainbat lekutan. Tiro eremuetan lumen handiak dituzten 30 LED argi ordezkatzeko. Tximistorratzaren, transformazio zentroaren eta multzo elektrogenoaren urteko mantentze lanak egitea. Koadro elektrikoak beharren arabera egokitzea. 4. tiro eremuan bastidoreen elikadura aldaketa ordezkatzeko. Lanpostuetako elektrizitate linea egokitzea. Material elektrikoak eskuratzea instalazio elektrikoak egiteko, bereziki telefonoguneak, kontrolatzaile jarduleak eta hargailuak. 450 panel fotovoltaiko mantentzea.

4.- Iturgintzako, berokuntzako, ur bero sanitarioko eta aire girotuko instalazioak eta mantentze lan orokorrak.

- Eguneroko aurreikuspen mantentzea, prebentiboa eta zuzentzailea galdara geletan, ekipo termikoetan, ur bero sanitarioan eta aire girotuan. Datuak jasotzea ur bero sanitarioaren kontagailuen arabera eta ur sarea hornitzea. Erradiadore berriak jartzea. Komunak eta dutxak konpontzea. Ihesak detektatzea. Praktika eremuan ur hargune berria jartzea. Egunero jarraitzea domotika sistemak kontrolatutako ikasgeletako tenperatura.

5.- Beste batzuk

- Arotzeriako, iturgintzako eta igeltserotzako egituren mantentze prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea. Igerilekuen kontrolaren eguneroko jarraipena eta datuak irakurtzea. Gimnasioko makinaren mantentze prediktiboa, prebentiboa eta zuzentzailea.

INPRENTAATALA

Inprenta Zerbitzuan, 2023an, Akademiaren dokumentuen edizio digitalerako eta inprimaketarako beharrezko lan guztiak egin dira; hala, horri esker, beste behin ere, akademia buruaskia izan da honako alderdi garrantzitsu hauetan: azterketak eta dagozkien zuzenketa txantiloiak

inprimatzea (akademian prestatzen diren profesional taldeetan laneratzeko, igotzeko, espezializatzeko eta eguneratzeko azterketak), akademian ematen diren diziplinen eskuliburuak eta tutorialak eta ekimen eta ekitaldi jakin batzuetarako behar diren kartelak.

ARMATEGIAREN ATALA

Armategiaren Atalaren lan jarduera 2023an ere ezinbestekoa izan da akademian erabiltzen diren armen erabilera zuzenerako. Armategiaren Atalaren gainbegiratze zorrotzarekin Ertzaintzaren, Udaltzaingoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoen (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) birziklatzeen XXXI. promozioko munizioa eta armak banatu dira, eta irakaskuntza armak eta Ertzaintzaren hainbat unitateri aldi baterako lagatako armak kontrolatu dira, besteak beste.

OSTALARITZA ATALA

- Jantoki zerbitzua azaroaren 15eraino: 32.956 janari.

B). - ANTOLAMENDU ETA GARAPEN ARLOA

Antolamendu eta Sistemen Arloak akademiaren informatika premiei erantzuten die eta beharrezko kudeaketak eta lanak egiten ditu telekomunikazio, sare, sistema, ekipamendu, sarbide eta aplikazio mailan beharrezkoa den guztia eskuragarri egon dadin. Halaber, askotariko arloei babes eta aholkularitza ematen die ezarritako tresna berrien inguruan ikasteko eta horiek eguneratzeko, eta hainbat prozesu automatizatuz, irtenbide informatikoak planteatzen ditu baita ere.

Aipatu behar dugu Arlo horrek Segurtasun Sailaren Telekomunikazioak eta Informatika Sistemak Kudeatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta lan egiten duela; azken horrek akademiaren premiei erantzuten die sailak definitutako esparru teknologian, bai sistemetan, bat teknologian, hardwarean eta softwarean ere.

Jarduera nagusiak

2023an jarduera garrantzitsu hauek egin dira:

- Irakurketa optikoaren bitartez akademiak deitutako hautaketa probak zuzentzea eta hautaketa prozesuen datu baseak mantentzea.
- Akademiako prestakuntza ikastaroetako probak zuzentzea.
- “Kudeaketa Akademikoa” aplikazioa kudeatzea eta jarraitzea.
- Bestelako aplikazioak eta programak kudeatzea.
- Akademiaren webgunea kudeatzea eta jarraitzea.
- Telekomunikazioen eta sistemen kudeaketa eta jarraipena.
- Proiektu hauen kudeaketa eta jarraipena: “GA –Web” eta “GA- Arkampus”.
- *e-learning* zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipena: “Arkampus”.

Ikasketa eta Plangintza Alorra

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokio EAEko Polizia Kidegoa osatzen duten kidegoen eskala eta kategorietan laneratu aurreko prestakuntza ikastaroak eta praktikaaldiak programatu, antolatu eta garatzea eta EAEko Poliziako langileen espezializazio eta prestakuntza iraunkorrerako prestakuntza antolatu eta garatzea.

Halaber, Ertzaintza osatzen dutenak euskalduntzeko trebakuntza ikastaroak programatu, antolatu eta garatzen ditu.

Larrialdiei aurre egiteari eta babes zibilari dagokienez, EAEko administrazioen menpe dauden Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemako oinarritzko zerbitzuetako langile gisa sartu aurreko prestakuntza ikastaroak eta praktikaaldiak programatu, antolatu eta garatu behar ditu akademiak, legez edo erregelamenduz ezartzen direnak.

Era berean, larrialdien eta babes zibilaren arloko prestakuntza ekintzak planifikatu, programatu, antolatu eta eman behar ditu, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemazuzenean edo zeharka esku hartzen duten profesional eta langile guztiei, enplegatu publikoei, erakunde pribatuei edo boluntarioei zuzenduta.

Hala, Ikasketa eta Plangintza Alorrak 2023an egin dituen jarduerak hurrengo tauletan jaso dira.

2023an guztira prestakuntzako **1.247.322** ordu eman dira.

MATRIKULAZIOAK	GIZONAK HOMBRES	%	EMAKUMEAK MUJERES	%	GUZTIRA TOTAL
	9.395	79,30	2.453	20,70	11.848

MATRIKULAZIOAK	GIZONAK HOMBRES	%	EMAKUMEAK MUJERES	%	GUZTIRA TOTAL
ERTZAINZA	5.425	79,02	1.440	20,98	6.865
UDALTAINGOA/POLICÍA LOCAL	2.350	72,89	874	27,11	3.224
LARRIALDIK/EMERGENCIAS	1.521	94,65	86	05,35	1.607
BESTE TALDE BATZUK/OTROS COLECTIVOS	99	65,13	53	34,87	152

PRESTAKUNTZA JARDUERA / ACTIVIDAD FORMATIVA

ERTZAINNTZA

IGOTZEKOA / ASCENSO

IKASTAROA/CURSO	EDIZ. KP. / EDIZIO O. Nº EDIC. / HORAS EDIC.	IKASLEAK/ALUMNADO		HASIERA INICIO	BUKAERA FINALIZACIÓN	MODALITATEA MODALIDAD
		GIZONAK HOMBRES	EMAKUMEAK MUJERES			
AGENTE LEHENA AGENTE PRIMERO/A	2 / 108	254	48	EKAINA JUNIO	UZTAILA JULIO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
OFIZIALORDEA SUBOFICIAL/A	1 / 159	157	37	IRAILA SETIEMBRE	AZAROA NOVIEMBRE	PRESENTZIALA PRESENCIAL

SARTZEKOA / INGRESO

IKASTAROA/CURSO	EDIZ. KP. / EDIZIO O. Nº EDIC. / HORAS EDIC.	IKASLEAK/ALUMNADO		HASIERA INICIO	BUKAERA FINALIZACIÓN	MODALITATEA MODALIDAD
		GIZONAK HOMBRES	EMAKUMEAK MUJERES			
XXXI PROMOZIOA PROMOCIÓN XXXI	1 / 1150	273	129	URTARRILA ENERO	--	ERDIPRESENTZIALA SEMIPRESENCIAL

ESPEZIALIZAZIOA / ESPECIALIZACIÓN

IKASTAROA/CURSO	EDIZ. KP. / EDIZIO O. Nº EDIC. / HORAS EDIC.	IKASLEAK/ALUMNADO		HASIERA INICIO	BUKAERA FINALIZACIÓN	MODALITATEA MODALIDAD
		GIZONAK HOMBRES	EMAKUMEAK MUJERES			
NRBQ-LEHERGAILUAK INDARGABETZEKO ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA CURSO DE ESPECIALIZACIÓN EN DESACTIVACIÓN DE EXPLOSIVOS-NRBQ	2 / 854	20	--	IRAILA SETIEMBRE	2024KO OTSAILA FEBRERO 2024	PRESENTZIALA PRESENCIAL
BIDE SEGURITASUNA SEGURIDAD VIAL	1 / 276	32	3	URTARRILA ENERO	EKAINA JUNIO	PRESENTZIALA PRESENCIAL

PRESTAKUNTZA JARDUERA / ACTIVIDAD FORMATIVA

ERTZAINNTZA

EGUNERATZEA ETA TREBATZEA / ACTUALIZACIÓN Y PERFECCIONAMIENTO

IKASTAROA/CURSO	EDIZ. KP. / EDIZIO O. Nº EDIC. / HORAS EDIC.	IKASLEAK/ALUMNADO		HASIERA INICIO	BUKAERA FINALIZACIÓN	MODALITATEA MODALIDAD
		GIZONAK HOMBRES	EMAKUMEAK MUJERES			
AUZITEGIKO BALISTIKAKO PERITU JUDIZIALA PERITO JUDICIAL EN BALÍSTICA FORENSE	1 / 300	4	--	ABENDUA DICIEMBRE	2023KO MAIATZA MAYO 2023	ON LINE
ATARIEN ETA IBILGAILUEN IREKIERA EZ-SUNTSITZAILEAK, ESTALIAK ETA AZKARRAK APERTURAS NO DESTRUCTIVAS, ENCUBIERTAS Y RÁPIDAS DE PORTALES Y VEHÍCULOS	1 / 32	5	--	ABENDUA DICIEMBRE	2023ko URTARRILA ENERO 2023	PRESENTZIALA PRESENCIAL
OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EUSKARRI APLIKAZIOAN ERTZAINETXEAK/TLU-OPERADOREENTZAT FORMACIÓN BÁSICA EN APLICACIÓN EUSKARRI PARA OPERADORES DE COMISARIAS/UTT	5 / 84	106	58	URTARRILA ENERO	EKAINA JUNIO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
EUSKARRI LURRALDE OPERADOREENTZAT OINARRIZKO PRESTAKUNTZA. 0 MAILA FORMACIÓN BÁSICA EUSKARRI OPERADOR TERRITORIAL. NIVEL 0	4 / 90	35	33	URTARRILA ENERO	ABENDUA DICIEMBRE	PRESENTZIALA PRESENCIAL
EUSKARRI LURRALDE OPERADOREENTZAT OINARRIZKO PRESTAKUNTZA. 1 MAILA FORMACIÓN BÁSICA EUSKARRI OPERADOR TERRITORIAL. NIVEL 1	1 / 42	1	--	URTARRILA ENERO	URTARRILA ENERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
ERTZAINNTZAN SARTUKO DIREN UDALTZAIN KIDEGOETAKO PERTSONAK EGOKITZEKO PRESTAKUNTZA FORMACIÓN DE ADECUACIÓN PARA PERSONAL DE LOS CUERPOS DE POLICÍA LOCAL DE EUSKADI QUE INGRESAN EN LA ERTZAINNTZA	1 / 94	6	3	URTARRILA ENERO	OTSAILA FEBRERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL

PRESTAKUNTZA JARDUERA / ACTIVIDAD FORMATIVA

ERTZAINTZA

EGUNERATZEA ETA TREBATZEA / ACTUALIZACIÓN Y PERFECCIONAMIENTO

IKASTAROA/CURSO	EDIZ. KP. / EDIZIO O. Nº EDIC. / HORAS EDIC.	IKASLEAK/ALUMNADO		HASIERA INICIO	BUKAERA FINALIZACIÓN	MODALITATEA MODALIDAD
		GIZONAK HOMBRES	EMAKUMEAK MUJERES			
ZAURITUENTZAKO BEREHALAKO LAGUNTZA: BOTIKIN TAKTIKOA ERABILTZEA ASISTENCIA INMEDIATA A HERIDOS: MANEJO BOTIQUIN TÁCTICO	1 / 6	5	--	URTARRILA ENERO	URTARRILA ENERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
OINARRIZKO PRESTAKUNTZA EUSKARRI APLIKAZIOAN ERTZAINETXEAK/TLU-OPERADOREENTZAT FORMACIÓN BÁSICA EN APLICACIÓN EUSKARRI PARA OPERADORES DE COMISARIAS/UTT	3 / 42	11	3	URTARRILA ENERO	MARTXOA MARZO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
LIDERGO-PRESTATZAILEEN PRESTAKUNTZA FORMACIÓN FORMADORES EN LIDERAZGO	1 / 54	14	--	URTARRILA ENERO	MARTXOA MARZO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
BALISTIKA FORENTSEARI BURUZKO PRESTAKUNTZA FORMACIÓN EN BALÍSTICA FORENSE	1 / 353	4	--	URTARRILA ENERO	MAIATZA MAYO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
ZAMA ARRISKUTSUEN GARRAIOA ERREPIDEAN TRANSPORTE DE MERCANCÍAS PELIGROSAS POR CARRETERA	1 / 24	8	--	URTARRILA ENERO	OTSAILA FEBRERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
PRESTATZAILEEN PRESTAKUNTZA: ENERGIA-EROALE GAILUEN INSTRUKTORE IKASTAROA FORMACIÓN DE FORMADORES/AS: CURSO DE INSTRUCTOR/A DE DISPOSITIVOS ELECTRÓNICOS DE CONTROL	1 / 28	17	--	OTSAILA FEBRERO	OTSAILA FEBRERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
POLIZIA-PROZEDURAK GERTAKARI KRITIKO AURREAN PROCEDIMIENTOS POLICIALES ANTE INCIDENTES CRÍTICOS	16 / 30	145	19	OTSAILA FEBRERO	AZAROA NOVIEMBRE	PRESENTZIALA PRESENCIAL
PISTOLAREKIN POLIZIA-TIRORAKO TEKNIKAK ETA TAKTIKAK TÉCNICAS Y TÁCTICAS DE TIRO POLICIAL CON PISTOLA	1 / 30	1	--	OTSAILA FEBRERO	OTSAILA FEBRERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL

PRESTAKUNTZA JARDUERA / ACTIVIDAD FORMATIVA

ERTZAINZA

EGUNERATZEA ETA TREBATZEA / ACTUALIZACIÓN Y PERFECCIONAMIENTO

IKASTAROA/CURSO	EDIZ. KP. / EDIZIO O. Nº EDIC. / HORAS EDIC.	IKASLEAK/ALUMNADO		HASIERA INICIO	BUKAERA FINALIZACIÓN	MODALITATEA MODALIDAD
		GIZONAK HOMBRES	EMAKUMEAK MUJERES			
BAIETZ TRESNA HERRAMIENTA BAIETZ	4 / 24	57	15	OTSAILA FEBRERO	MARTXOA MARZO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
PISTOLAREKIN POLIZIA-TIRORAKO TEKNIKAK ETA TAKTIKAK TÉCNICAS Y TÁCTICAS DE TIRO POLICIAL CON PISTOLA	52 / 12	550	78	OTSAILA FEBRERO	ABENDUA DICIEMBRE	PRESENTZIALA PRESENCIAL
TIRO TEKNIKAK ESKOPETAREKIN TÉCNICAS DE TIRO CON ESCOPETA	22 / 2,30	304	58	OTSAILA FEBRERO	AZAROA NOVIEMBRE	PRESENTZIALA PRESENCIAL
BOLA JAURTIGAILUA ERABILTZEKO TEKNIKAK TÉCNICAS DE UTILIZACIÓN DE LANZABOLAS	22 / 3	304	58	OTSAILA FEBRERO	AZAROA NOVIEMBRE	PRESENTZIALA PRESENCIAL
NOLA HITZ EGIN JENDEAURREAN CÓMO HABLAR EN PÚBLICO	1 / 15	7	1	OTSAILA FEBRERO	OTSAILA FEBRERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
BIDE-SEGURTASUNEAN MOTORRAK GIDATZEKO PRESTATZAILEEN PRESTAKUNTZA FORMACIÓN DE FORMADORES PARA IMPARTIR CONDUCCIÓN DE MOTOCICLETAS SEGURIDAD VIAL	1 / 30	6	--	OTSAILA FEBRERO	OTSAILA FEBRERO	PRESENTZIALA PRESENCIAL
